

## **Mankomunitatea eta euskara zerbitzua**

Euskara Mankomunitatea udalek osatzen dute, eta Euskal Herriko beste hainbat udaletan erabilitako ereduari jarraiki, euskararen normalizazio lanak bideratzeko eta gauzatzeko euskara zerbitzuaz baliatzen dira.

Mankomunitatearen egiteko eta lan gehienak hartzen ditu bere gain euskara zerbitzuak, eta hura da erakundearen baliabide nagusia.

### **Zer da euskara zerbitzua?**

Euskara Mankomunitateko udalek beren hizkuntza politika egiteko eta euskara sustatzeko daukaten tresna bat da euskara zerbitzua. Udal zerbitzu bat da beraz, udalen baliabide bat, udalek sortua, eta udalak dira, Mankomunitatearen bitartez, bertan agintzen dutenak.

### **Zertarako da?**

Euskara zerbitzuaren eginkizun nagusia hau da: euskara normalizatzeko eta indartzeko udalek egiten duten lana planifikatzea, antolatzea, koordinatzea, gauzatzea eta ebaluatzea. Lan hori, nolana ere, euskararen munduan lanean diharduten beste talde edo erakunde batzuekin batera egiten du (euskaltegia, euskara taldeak, ikastetxeak, euskaltzaleak, kultur taldeak...).

Euskara zerbitzuak, bestela esanda, eskualdeko udalerrietan oro har, eta udaletan bereziki, euskara bultzatu, sustatu eta normalizatzeko lan egiten du.

Udalek euskararen inguruan gauzatu nahi duten hizkuntza politika bideratzen du, eta, bestalde, herritarrei ere zerbitzu jakin bat ematen die.

### **Esparru geografikoa**

Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitateak bere baitan biltzen duen esparru geografikoa oso zabala da. Hiru eskualdetan banatzen da, eta hiru eskualde horietan 12 udalerri eta 68 herri daude. Honakoak dira, udalerrika antolatuta, Mankomunitatearen baitan biltzen diren herriak. Parentesi artean biztanle kopurua jasotzen da:

Araitz (523 ): Arribe, Atallu, Azkarate, Gaintza, Intza, Uztegi.

Arano (116)

Areso (283)

Basaburua (828): Aizarotz, Arrarats, Beruete, Gartzaron, Ihaben, Igoa, Itsaso, Jauntsarats, Orokieta-Erbiti, Udabe- Beramendi

Betelu ( 374 )

Goizueta (689)

Imotz (430): Eraso, Etxaleku, Goldaratz, Latasa, Muskitz, Oskotz, Urritza eta Zarrantz

Larraun (928 ): Albiasu, Aldatz, Alli, Astiz, Azpiroz, Arruitz, Baraibar, Errazkin, Etxarri, Gorriti, Iribas,

Madotz, Mugiro, Oderitz, eta Uitz

Leitza (2.965)

Lekunberri (1.574)

Odieta (355): Anotzibar, Erripa, Gaskue, Gelbentzu, Gendulain, Latasa, Ostitz, eta Ziaurritz

Ultzama (1.674): Alkotz, Arraitz-Orkin, Auza, Eltso, Eltzaburu, Gorrontz-Olano, Gerendiain, Ilarregi, Iraizotz, Larraintzar, Lizaso, Suarbe, Urritzola-Galain, eta Zenotz

## **Egitekoak**

Euskara zerbitzuaren egiteko nagusia Euskara Mankomunitatearen helburuak auzatzeko jarduerak eta ekimenak garatzea da. Jarduera eta ekimen horiek askotarikoak izan litezke, baina labor beharrez eta modu erraz batean adierazita, honela azaldu, sailkatu eta azaldu genitzake:

.- Udalek finkatutako hizkuntza-politikaren arabeko normalizazio-planak diseinatzea, gauzatzea eta ebaluatzea.

.- Euskara zerbitzuaren eta oro har euskalgintzaren inguruan sortzen diren lanak koordinatzea.

.- Euskararen inguruko gaietan udalak eta herritarrak laguntzea: aholkularitza, dinamizazioa, zerbitzuak (itzulpenak eta zuzenketak), diru-laguntzak bideratzea...

.- Udalerriko bizitzan euskararen erabilera sustatzea.

.- Udalaren barne jardueran euskararen erabilera sustatzea.

.- Euskararen egoeraren segimendua egitea eta sortzen diren egoera eta arazo jakinen aurrean proposamenak eta planteamenduak egitea.

## **Funtzionamendua**

Euskara Mankomunitateak, bere estatutuetan jasotako eran, helburu jakin batzuk dauzka, eta euskara zerbitzua horiek gauzatzeko bitartekoa da. Horretarako urteko plana osatzen da, eta plan horretan jasotzen dira urtean zehar —edo hainbat urtetan zehar— gauzatu beharreko jarduerak, esku- hartzeak, egitasmoak edo ekintza zehatzak.

Plan hori, barrutik nahiz kanpotik egindako ekarpenak jasota, euskara zerbitzuak diseinatzen du eta Mankomunitateak onartu. Eta eskualdeko euskara teknikaria da eguneroko jardunean haren gauzatzeaz, segimenduz eta ebaluazioaz arduratzen dena, betiere euskalgintzako gainerako eragileekin, udal ordezkariekin eta herritarrekin elkarlanean.

Urteko planak aurrekontu bat izaten du, arloz arlo zehaztua, inbertsio edo ahalegin ekonomikoa eskatzen duten normalizazio lanak ere —denak ez baitira halakoak— berma daitezzen.

Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitatearen lurralde-esparrua oso handia denez, Mankomunitatearen egitura eta funtzionamendua ere errealitate horri egokitu behar izan zaio. Hiru eskualdetan banatuta dago Mankomunitatea, eta eskualde horietako bakoitzak teknikari bana, urteko plan bana eta aurrekontu bana daukate.

Langileen kontratazioa, azpiegitura, funtzionamendu gastuak eta beste zenbait atal Mankomunitate osoa hartzen duen Plan Orokor baten barruan biltzen diren arren, eguneroko normalizazio lanerako egitasmoak, jarduerak nahiz ekintzak antolatzekeo planak eskualdeka banatuta daude eta, ondorioz, eskualde bakoitzak bere zerbitzua, bere teknikaria eta bere plana dauka, eta funtzionamendua ere nahikoa autonomia da. Badago koordinazio eta elkarlan maila jakin bat —Mankomunitate bereko zerbitzuez ari baikara—, baina egunerokoan eskualde bakoitzak bere lehentasunak, erritmoa eta ildo propioa dauka.